

TORTURATUENGANAKO SENTIMENDUAK

Inork bestelakorik uste eta espero ez dezan, ezer baino lehen adierazi nahi dut, artikulua honetan ez naizela kontzeptu etikoez arituko, ezta inori zer egin edo pentsatu behar duen esaten ere, torturak nigan sortzen dituen sentimenduez baizik. Horrela, askatasun handiagoaz baliatu ahal izango naiz, sentimenduek ez baitute mugarik onartzen, diren bezalakoak baitira, eta ez baita zertan sentimenduei buruzko azalpenik eman, sentitu egiten baitira.

Gai delikatuaz arituko naiz, izua sortzen duen gaiaz, baina gure artean aspaldidanik bizirik dagoen errealitateaz, uste baitut antzina hasi zenetik inoiz ez gaituela abandonatu; gehiago oraindik, bestelako ekimen zehatzik egin ezean, gure herritik alde egiteko itxurarik ez duen errealitatea delakoan nago. Erakunde publikoetan dauden agintarientzat tabu den hitz baten inguruan ibiliko naiz, zehazki esanda, tortura hitzaren biran.

Garze nintzela ezagutu nuen tortura neure gorputzean. Ezin ahaztuzko esperientzia da, zinez, hori ezagutu duen edonork dakienetz, nahiz eta torturapean sorturiko izuak gainditu daitezkeen nola edo hala, jasandakoa lagunekin konpartituz bereziki. Esperientzia bizi izan dudalako dakit, torturatua zaren bitartean, une batean bederen, heriotza desio duzula, behar duzula, zauden infernutik ihes egiteko bide bakartzat duzulako.

Zeren infernurik baldin balego, antzeko zerbait izan beharko bailuke.

Infernua aipatu dudanez, esan behar dut ezen orduandanik hil osteko infernurik ez dagoela uste dudala. Ez, benetan. Infernurik ezin existi daitekeela sinesten dut, firmeki sinetsi ere, ezin izan baitaiteke izaki onik inori torturarik desio dionik, inori tortura ezartzen dionik, denik kriminalik handienari ere; ezta tortura-egileari berari ere. Izaki on ahalguztidunik badago, infernurik ez dago; ezin da egon. Horixe da nire logika.

Ene iritziz, gainerako animaliangandik bereizten gaituen jarduera da tortura; izan ere, oker ez banago, antzeko praktkarik ez baita ezagutzen animalien artean. Animaliek hainbat arrazoi-rengatik hil dezakete besteren animaliaren bat: jan beharra dela, defenditu beharra dela, lehiatu beharra dela... Baina nik dakidala, ez dago animaliarik beste bati sufrimendua berariaz emateko gai denik, esan nahi dut, nahita sufriarazten saiatzen denik. Hori pertsonok baino ez dugu egiten. Guztiok gara gai, gainera. Horregatik uste dut gizakien duintasuna gehien degradatzen duen ekintza tortura dela, torturatzailea duintasun-ezaren amaierarik gabeko putzu sakonean hondoratzen duena. Eta torturatzailea hiltzailerik handiena baino miserablegoa dela.

Baina tortura hori baino zerbait gehiago da, ez baita gauza pertsonala, zerbait kolektibo baizik. Tortura gauza planifikatua da, beti ere agintedunen babespean egina, helburu jakin bat lortzeko. Botere jakin baten izenean egiten da, ustezko autoritate baten izenean, dela erlijioaren izenean, beste garaietan gure artean Inkisizioarekin gertatu zen bezala, edo dela “zuzenbide-estatuaren” izenean, orain gertatzen den bezala; beti ere, agintean dagoen botere etereo baten izenean. Zeren tortura inpunitatez praktikatu ahal izateko guztiz beharrezkoa baita agintarien babesa, era aktiboan eta era pasiboan.

Horixe da torturaren ezaugarri behinena, inpunitatez praktikatu ahal izatearena alegia, zigorrik gabe. Eta zigorgabea izateko, kolektiboa behar du izan, kolektiboki onartua, boterean

dauden estamentu askoren konplizitatea behar delako tartean inpuneki gauzatu ahal izateko; konplizitate hori nahitaezkoa delako. Gure egunotan bezala, non politikarien, epaileen, komunikabideen eta besteren isiltasunik gabe ezinezkoa izango baitzen. Arrazoi horrengatik, nire sentimendurik negatiboenak torturaren ezkutatzaille horien guztienganakoak dira, horien guztien faltsukeriak eta hipokrisiak sortuak.

Kontrara, tortura sufritu duten pertsonak, beren akats eta guzti, duintasunaren ikur dira niretzat. Sentimendurik positiboenak sortzen dituzte nigan, dardara hunkigarrienak. Horrengatik miresten ditut, horrengatik sinesten diet; hitz batez, horrengatik maite ditut.

Miretsi egiten ditut torturatuak, pertsonaren duintasunaren erakusle direlako; eta torturatzaille duintasunik eza agertzen dutelako, berez. Are gehiago miresten ditut, jasandako basatikeriak publikoki kontatzeko adorea duten torturatuak, hotzikarak sortzen dizkidaten arren; edo agian, horrengatik. Izan ere, bihotza dardar jartzen baitidate, sentimendurik bihozkorrenak sortuz nigan. Nola ez, ba, miretsi!

Sinetsi egiten dut torturatuen hitza. Egia diotelako, beren sufrikarioaren kronikariak direlako, berek bakarrik eskain dezaketen kontakizuna gizarteratzen dutelako. Nola ez, ba, sinetsi!

Maite ditut torturatuak, mundu guztiko torturatuak, Guantano eta Irakekoak, Palestinakoak, Erdi Arokoak, atzokoak eta gaur egungoak... izenik ez dutenak. Baina bereziki maite ditut hurbilekoak, Euskal Herrikoak, izen propioa dutenak, Mikel, Unai, Martxelo, Gorka, Martin edo Igor deitzen direnak. Horiek hunkitzen naute gehien, horiek miresten ditut gehien, horiek maite ditut gehien. Nola ez, ba, maite!

Degradazioaren goren maila da tortura, esan nahi baita, torturaz baliatzea edozein helburu lortzeko, bereziki politikoa edo ideologikoa, pertsonen duintasunaren eta askatasunaren oinarrien aurka baitoa. Baina degradatzen duen bakarra tortu-

raren erabiltzailea da, ez torturatua. Torturatua goraturik gertzen da, bere izate hutsez degradazioaren salatzaile bihurtzen baita, duintasunaren eta askatasunaren sinbolo.

Gaizki dabilta munduko torturazaila guztiak, itxuraz nagusi, indartsu eta boteretsuak badira ere. Zigorrik jaso gabe, in-punitatez jokatzeko badute ere. Gaizki dabilta jendea enteratuko ez dela uste badute. Gaizki dabilta zigorgabetasunaren babespean jokatzeko ari diren guztiak, jakin behar baitute lehenago edo geroago agerian geratuko dela beren krudelkeria. Alferrik dituzte egindakoa estaltzeko saio guztiak, asma ditzaketen “bertsio” guztiak. Torturatuaren hitz bakarrarekin deusezturik geratzen baitira; zeren, sinetsi, torturatuei sinesten baitzaie. Beti.

Azken boladako kronika egitea argigarria da guztiz. Hedabide gehienek laguntzaz antolatutako isiltasun-paktua gorabehera, torturaren oihua mundu osora zabalduta, ozen. Egiak bide bakarra baitu eta urak beti topatzen baitu bere bidea. Antzinarako sorginen kasuan bezala, “sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik”. Patetikoa da, oster, GALeko sortzaileen jokalordea ikustea, orain torturari babesa ematen, egunetik egunera asmatu behar izan dituzten “bertsioak” irakurtzea. Izan ere, arraina ahotik usteltzen hasten den bezala, bertsio ofizialen adierazleei hitz egiten uztea baino gauza hobetik ez baita- go egia- ren bidezidorra nondik nora doan ulertzeko eta bistaratzeko.

Bere bidea egiteko ura zirrikituetatik pasatzen den era berean, zirrikitu ezin argigarriagoa erakutsi digu barne-ministro espainiarrak azken hileotan, gazteei edozer leporatuz torturaren existentzia estali nahi izan duenean, efikazia polizialaren ize- nean edozer egitea justifikaturik dagoela adierazi nahi balu be- zala. Ez ote da konturatzen, estaltzeko ahalegin horrek berak erakusten duela argien egia zein den, eguneroko praktikan torturan oinarritzen direla, alegia, tortura erabiltzea dela beren estiloa? Argigarria izan da egunetik egunera asmatu behar izan

dituenak ikustea, *in crescendo*ko era batean gero eta ekintza potologoak leporatuz, nahiz eta ordurako gazteak ospitalean egon beharra izan duten. Horrek erakusten du bertsioak asma-zeko fabrika dutela, edozer gauza ezinezko sinetsarazteko asmoz. Egunotan gogoan izan dut antzinako sorginek ere aitortzen zituztela deabruarekin izandako jaiak edo erratz gaineko hegaldiak edo torturazaileen imajinazio gaixoetan sortu eta halabeharrez aitortu beharreko guzti-guztiak. Inkisidoreek horrela nahi zutelako. Torturazaileek horrela nahi dutelako, horrela komeni zaielako.

Ez dut luzatu nahi testua, nik idatz ditzakedanak baino infinitu aldiz argigarriagoak baitira torturatuen hitzak, Unairenak, Martxelorenak edo Gorkarenak adibidez. Horiek irakurtzea gomendatzen diot egia jakin nahi duen edonori. Egia jakin nahi ez duenarentzat uzten ditut bertsioak; ofizialak eta mediatikoak, bereziki.

Munduko torturatuen omenez idatzi ditut lerro hauek, bereziki gugandik hurbil torturatu dituztenengatik, gure herrikide torturatuen omenez. Baina ez horregatik soilik. Egia esanda, nigatik ere idatzi ditut, bihotzak eskatzen zidalako, sentimenduak agertu behar nituelako. Jendea sentimendu horiekin kutsatu nahi dudalako, torturatuak maite ditudalako.

J. R. Etxebarria
Irakaslea